

#### 4. BEZERO KANALAK

Gure enpresaren inguruan informazioa eskuratzeko edo erreserbak egiteko kontaktuan jartzeko aukerak hurrengoak dira:



Gure kasuan, hainbat sare sozialetan ireki dugu gure enpresaren kontua, **@Lan&Lo**, kontu hau Instagramen, Twitterren eta Facebooken irekiko dugu. Han bertan publizitatea eta marketing-a egingo dugu, bezeroak erakartzeko. Gure sare sozialetan, gure kokapena zehaztuko dugu, gure lokalaren argazkiak igoko ditugu...



Pertsona gehiago etortzen ari direnean web-orrialde bat sortuko dugu, han bertan erreserbak egin ahal izateko. Hori gutxi bada, gure enpresaren informazioa zehaztuko dugu, eta noizbehinka eskaintzak eta beharpenak daudenean web-orrialdean eta beste sare sozialetan azalduko ditugu. Erreserbatzeko gure telefono zenbakira deitu diezakezu edo gure gmailera idatzi.



[laan.eta.loo@gmail.com](mailto:laan.eta.loo@gmail.com)



Telefonoz informazioa eskuratzeko aukera jarri dugu, bai informatzeko eta bai erreserbatzeko. Rezepzioan dagoen pertsonarekin hitz egingo dute zuzenean eta berak emango du bezeroak behar duen informazio edo erreserba.



Bertan ere erreserbatzeko aukera izango dute eta nahi izanez gero gure instalazioak ikustera pasa daitezke lekua hobeto ezagutzeko.